



ERAIKIN NAGUSIA ETA EGOITZA. 2. FASEA

KONTRATAZIO OINARRIAK 2020ko uztaila

Oinarri hauen xedea Lezamako Egoitza eraiki eta eraikin nagusiaren erreforma egiteko lanen 2. Fasea burutzeko kontratazio prozedura garatzeko kontratu baldintzak eta baldintza teknikoak ezartzea da.

Oinarrien barruan daude honakoak:

I. Eranskina – Lizitazioa eta kontratuak arautzeko klausulen agiria.

II. Eranskina.- Baldintza bereziak.

III. Eranskina.- Baldintza orokorrak

- Memoria, Planoak, Agiri Teknikoak, Aurrekontua, Segurtasuna eta Osasuna, Kalitate Kontrola, Hondakinen Kudeaketa eta gainerako dokumentazio teknikoa

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

LIZITAZIOA ETA KONTRATUA ARAUTZEKO KLAUSULEN PLEGUA

KARATULA

A.- KONTRATUAREN XEDEA

LEZAMAKO ERAIKIN NAGUSIAREN ERREFORMA ETA EGOITZA BERRIA ERAIKITZEKO LANEN 2. FASEA. LUR-ARRASEAN.

B.- KONTRATAZIO ORGANOA

ATHLETIC CLUB

C.- LIZITAZIO AURREKONTUA GEHIENEZ

Ez da zehaztu.

D.- PREZIOARI BURUZKO OINARRIZKO BALDINTZAK:

Kontratua gorako prezio finko eta itxian egingo da; ondorioz, aldaezina izango da. Horrela izanik, ez du aldaketarik izango, burutu beharreko obra unitateak edota neurketak edozein direla ere, kontratuaren, araudien eta eskumena duten organismoen aholkuen arabera lanak guztiz amaituta egon arte.

Hala ere, eskainitako unitate-prezioen zerrenda loteslea izango da kontratistarentzat. Erreferentzia prezio moduan aplikatuko dira Athletic Club erakundeak eska ditzakeen kontratu aldaketa edo zabalkuntza kasuetarako.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Athletic Club erakundea ez da derrigortuta egongo kontratuaren barruan unitate kopuruaren murrizketak egiten diren partidaren osotasuna ordaintzera. Prezioa murriztu egingo da, dagokion neurrian. Athletic Club erakundeak eskubidea izango du egoki ikusten dituen aldaketak adjudikaziodunari eskatzeko, aurkeztutakoari dagokionez. Honakoak izan daitezke: obra-unitateak kentzea, unitate gehigarriak exekututzea, ezaugarriak aldatu edota lan gehigarriak egitea, aurkeztutakoaren inguruan. Kontratistak horiek betetzeko betebeharra dauka.

Era berean, neurketen dokumentuan aukerako gisa ezarritako partidak burutzeko eskatu ahal izango du Athletic Club erakundeak, jatorrizko partidetatik dagozkion egoerara neurketa edo partida osoak ekarriz.

E.- BURUTZEKO GEHIENEN EPEA

Honako epeak ezarri dira:

- 2A. FASEA: Egoitzaren eraikina eta lur azpiko aparkalekua:
 - o < 12 hilabete jakinarazpena egin zenetik.
- 2B. FASEA: Aldi baterako dependentziak
 - o < 3 hilabete jakinarazpena egin zenetik.
- 2C. FASEA: Eraikin nagusiaren erreforma osoa
 - o < 18 hilabete Athletic Club erakundeak eraikina husten duenetik.
 - o 2021eko urtarrilean hasiko litzateke, ustez.
- 2D. FASEA: Piru Gainza aldagelen erreformak.
 - o < 2 hilabete
 - o Egin behar da:

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM
BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)
PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

- Taldeen oporraldietan. Normalean, uztaila/abuztua.
- Behin eraikin nagusia inauguratuta.

Fase bakoitza ahalik eta denbora gutxienean egitea adjudikazioan baloratuko da.

Lizitatzailerak proposatu beharko du, bideragarritasuna eta arrazoizkotasuna oinarri hartuz. Epe horietan burutzeko konpromisoa adjudikazio-hartzailearentzako betebeharra izango da, eta, ez betetzekotan, dagozkion penalizazioak aplikatuko dira.

Ez lortzekotan, tarteko bide batzuk adostuko dira; lotesleak izango dira eta zigorra ezarri ahalko da, ez betetzekotan.

F.- LUZATZEKO AUKERA

Ez dagokio.

G.- IZAPIDETZEA

Pleguen arabera

H.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA.

Irekia

I.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Oharra: Eskaintzak plegu honetan adierazitakoaren arabera ordenatuta aurkeztu beharko dira (7.6. puntua. Interesdunek aurkeztu beharreko dokumentazioa). Ordena eta tamainaren arabera egokitu gabeko eskaintza oro balorazio teknikoan penalizatuko da.

I.1.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK – GEHIENEZ ERE 60 puntu

- **Fase bakoitzean proposatutako epea, plangintzaren azterketa eta mugarriak.**
Fase bakoitzeko epe laburrena eskaintzen duen proposamena baloratuko da, betiere, ondo arrazoituta eta tarteko mugarri batzuk betetzeko konpromisoarekin, unitate garrantzitsuenen errendimenduak dituen plangintzaren azterketa, eta epeak aurrezteko eta desbideratzeak aztertzeo neurriak.
- Proposamen tekniko eta exekuzio metodologiaren kalitatea.
Bereziki baloratuko dira azken emaitzarako onuragarri diren hobekuntzak.
Obraren zailtasun nagusien identifikazioa eta konponbideen proposamena baloratuko da.
Instalazioetan partidak, entrenamenduak eta abar ondo koordinatuta egin ahal izateko neurriak baloratuko dira.
- Obrei esleitutako **giza baliabide eta baliabide materialen** egokitasuna.
Omnigrama eta obra antolatze modua.

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOITZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

Proposatutako taldearen maila eta bulego teknikoko taldearen prestasuna baloratuko da, baita topografia, delineazio, planoen prestaketa eta as built dokumentazioa ere.

Baliabideen histograma eta organigramaren aurkezpena.

Izenez adierazi beharko da obra-burua zein den, CV eta antzeko obretan izandako esperientzia urteak adieraziz.

Azpikrontatek parte hartzekotan, beren konpromisoa idatziz aurkeztu beharko dute.

Obrara taldeak atxikitzea baloratuko da. Horretarako, langileen histograma eta aurreikusitako makinak jasoko dira.

- Laneko Arriskuen Prebentzio arloko proposamenak eta Kontrol eta Kalitate Plana.

Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria izatea baloratuko da, eta obran segurtasuna eta kalitate-kontrola bermatzeko egiten diren azterlanak. Bereziki, aspektu horren inguruko dedikazioa.

- Proiektuaren akats, omisio eta aldaketen zerrenda.

Eskaintzaileak usteko balu proiektu teknikoan akatsak edo omisioak daudela, atal honetan azalduko ditu, eta ekonomikoki baloratu.

Azkenik, lehiaketaren oinarri hauetan definitu den moduan, kalitateari kalterik egin gabe eskaintza ekonomikoa hobetzeko balio dezaketen aurrezpen ekonomikorako neurriak positiboki baloratuko dira. Neurri horiek puntu independente moduan azalduta egongo dira eskaintzaileak aurkezten duen proposamen teknikoaren barruan, Athletic Cluberako ekarriko lukeen eraginaren balorazio ekonomikoarekin. Aurrezpen neurri horiek argiak izango behar dira, teknikoki zein ekonomikoki, eta ez dira eskaintzen den azken prezioan kontuan izango. Neurri horiek Athletic Club erakundeak baloratuko ditu, eta onartu edo baztertu egin beharko ditu, adjudikazio-hartzailearekin sinatu ostean. Onartzekotan, egindako kontratuaren prezioetik kenduko dira.

- Athletic Club Fundazioa eta Athletic Club erakundearekiko harreman komertziala Athletic Club Fundazioko kidea izatea edo Athletic Club erakundearekin harreman komertzialen bat izatea modu positiboan baloratuko da lizitazio honetan, kontuan izanda erakundearekin lan egiteko kategoria.

Eskaintza onartu ahal izateko, izapide honetan 42 puntuko puntuazioa lortu beharko da, gutxienez. Puntuazio hori lortzen ez duten eskaintzak ez dira adjudikaziorako kontuan hartuko.

I.2.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

GEHIENEZ ERE 40 puntu

Zenbatekoa

Puntuazioa = (Onartutako eskaintza ekonomikoa x 40) / baloratu beharreko eskaintza

Ez da onartuko lizitazio-mota gainditzen duen eskaintzarik.

Eskaintza ekonomikoak automatikoki kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideen azken atalean adierazitako akats edo omisioak barne hartu beharko ditu, hau da, ez da eskaintako prezioan hazkunderik onartuko, ezta jatorrizko proiektuaren akats edo

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOITZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

omisioen ondorioz ere. Eskaintzaileak proiektu teknikoa errebisatu beharko du, eta lehiaketa eskaintzeko unean, onartzen du proiektua baliozkoa dela, eta lehiaketaren xedea burutzeko nahikoa.

Aurrezki ekonomikorako neurriei dagokienez, dagokion atalean azaldu den moduan, Athletic Club erakundeak balioztatu edo baztertu egingo ditu gerora, beraz, ezin da inolaz ere pentsatu eskaintako prezio itxiaren barruan daudenik, eta, onartzekotan, prezio horretatik kenduko dira.

J.- BERMEAK

- BEHIN BEHINEKO BERMEA: 50.000 €
- BEHIN BETIKO BERMEA: Adjudikazio zenbatekoaren % 5 (BEZ kanpo).
- ATXIKIPENAK: Faktura bakoitzaren zenbatekoaren % 5.

K.- PREZIOAK ERREBISATZEA

Ez dira errebisatuko.

L.- ALDAEREN BAIMENA

Kontratatistak lizitazioaren eskakizunen arabera proposamen bat aurkeztu beharko du, eta Proposamen Nagusi moduan eskaini beharko da.

Hala ere, beste aukera batzuk proposatu ahal izango ditu, prezioa txikiagoa edo epea laburragoa izateko.

M.- KONTRATISTEN SAILKAPENA EDO KAUDIMENA EGIAZTATZEKO BALIABIDEAK

-C Taldea) Eraikinak - f) kategoria

N.- PENALIZAZIOAK

Baldintza Orokorren Pleguan ezarritakoaren arabera.

O.- BERME EPEA

Baldintza Orokorren Pleguan ezarritakoaren arabera.

P.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko ABUZTUAREN 10a, 12:00ak baino lehen.

Q.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA

Eskaintzak Athleticen egoitzan aurkeztuko dira, Ibaiganen. Mazarredo zumardia 23. 48009 Bilbo.

S.- ASEGURUAK

Adjudikazio-hartzaileak eskatutako aseguruaren kontratazioarako kostuak gehituko ditu bere eskaintzan (gizarte erantzukizuna, eraikuntzako arrisku orotakoa...), eta aseguratu gehigarri moduan sartuko ditu Athletic Clubeko langileak zein Zuzendaritza Fakultatiboa.

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS



ISO 9001

BUREAU VERITAS
Certification





ATHLETIC CLUB



ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (2O. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 2O)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS

